

Kutxabankek 'Wealth Management' arloa sortu du ondareen kudeaketako hazkundera eta koordinazioa bultzatzeko

- Bere lehentasunetako bat Kutxabank Banka Privada Finecoren negozioa bikoiztea izango da, 10.000 milioiko aktiboak kudeatzera iristeko
- Joseba Oruetak zuzenduko du banka pribatuan, banka pertsonalean eta Premium Banca berrian espezializatutako alorren koordinazioa, bai eta ondareen kudeaketari lotutakoena ere
- Daniel Irezabal Kutxabank Banka Privada Fineco-ko kontseilari delegatu berria izendatuko dute. 27 urtetik gorako eskarmentua du banka pribatuko ondareen kudeaketako zuzendaritza-postuetan
- Enrique Sáez ordezkatu du, eta Kutxabankek alor honen hazkunderaren alde egin duen lana eskertu dio
- Jorge Morquecho Kutxabank Gestionekeko kontseilari delegatu berria izango da, Oruetaren ordezkari

2024ko uztailaren 10ean. Kutxabankek 'Wealth Management' izeneko unitate berria sortu du, banka pertsonala, pribatua eta 'Premium Banka' berria bateratu eta koordinatuko dituen, bai eta sare hauei produktuak ematen dizkieten arloak ere, hau da, Kutxabank Gestión, Fineco Gestión, Baskepensiones, Kutxabank Empleo, eta aurreikuspen-aurrezko eta aseguru-aurrezko alorrak, Kutxabank Segurosen barruan. Unitate berriak 38.000 milioi euroko bezeroen baliabideak kudeatuko ditu.

Antolakuntza-egituraren aldaketa honek talde-irizpidea emango dio ondareen kudeaketari, espezializazio handiagoko aholkularitza behar duten bezeroei zerbitzua emateko. Bere eginkizuna Taldearen balantzetik kanpoko baliabideen kudeaketa koordinatzea izango da, **Aitor Aranburu** Kutxabanken Txikizkako negozioaren zuzendaritza korporatiboaren menpean. Kutxabank Wealth Management berriak ikuspegi globala eta bateratua emango dio negozioari, ondare handiko profiletara egokitutako inbertsio produktu berri zehatzak bateratzeaz gain.

2014az geroztik Kutxabank Gestionekeko kontseilari delegatua izan den **Joseba Oruetak** zuzenduko du sail berria, ondareen segmentua hartzen duten negozio-lerro guztietan hazten jarraitzeko helburuarekin. Orueta finantza Taldeko langilea da duela 30 urte, eta ibilbide profesional luzea egin du inbertsio kolektiboko erakundeen kudeaketan eta marketin arloetan, batez ere.

Wealth Management unitateak bezero-kopurua eta kudeatutako ondarea handitzea du helburu, besteak beste.

Hazkunde planen artean dago **Banca Privada Kutxabank, Fineco**, ondare eta sofistikazio maila handiena duten bezeroak kudeatzen jarraituko duen arloa.

Daniel Irezabal Banca Privada Kutxabank Fineco-ko kontseilari delegatu izendatuko dute. Irezabalek uda ondoren hartuko ardura, araudiak ezarritako baimenak eta bete beharreko epeak gainditu ondoren. Deustuko Komertzialean lizentziatua da, eta 25 urte baino gehiagoko esperientzia zabala du banka pribatuari lotutako zuzendaritza postuetan. Kutxabank Taldean bateratu arte, Euskadiko eta Errioxako Banca March-en lurralde zuzendaria izan da ondareen bankan, eta ardura karguak izan ditu Sabadell Urquijo, UBS, Banco de Santander, Barclays Bank edo HSBC-n, guztiak banka pribatuan edo wealth management jardueretan.

Daniel Irezabalek Enrique Sáez ordezkaturiko du, Finecoko buru izanik ibilbide luzea egin ostean. Finantza Taldeak bere ibilbide jarduera luzea eta Kutxabanken banka pribatuko dibisioa indartzeko egin duen ekarpena onetsi ditu, azken urteotan ondare kudeaketaren industrian gehien hazi den enpresetako bat izan baita, 2008an bankuak akzio-partaidetzan kontrol-posizioa hartu zuenetik.

Garai berri honetan Kutxabanken banka pribatuak kudeatutako aktiboak bikoiztu eta kudeatutako ondarea 10.000 milioiko langaraino iristeko asmoa du. Hori lortzeko, epe ertainean bere langile kopurua bikoiztu egingo du, gobernu-organo propioak eta egitura juridiko independentea mantenduz. Gainera, aurrezki eta inbertsio eskaintza indartuko da, baliabide teknologikoak hobetzeaz gain.

Kutxabanken bezeroen segmentazioa zabalduko du arlo espezializatu bat sortzearekin batera. **Banca Premiun** deituko da, eta 400.000 eta milioi 1 eurora arteko bezeroei emango die zerbitzua. Segmentazio berri honek kudeaketa pertsonalizatuko eta finantza-aholkularitzako kudeatzaile espezializatuak izango ditu.

Kutxabank Wealth Management-eko zuzendaritza berritik, arlo espezializatuen kudeaketa-irizpideak bateratuko dira, negozio-dinamikak indartuz eta produktu eta zerbitzu espezializatuen eskaintza hobetuz.

Jorge Morquecho izango da Kutxabank Gestionekeo kontseilari delegatua, Oruetaren orde. Morquechok ia 30 urteko ibilbidea du finantza Taldeko zuzendaritza postu ezberdinetan. Bilbo Bizkaia Kutxan Gizarte Ekintzako zuzendaria eta Banka Pertsonala eta Aktiboen Kudeaketako zuzendariordea izan zen. CajaSur Banco SAUn negozioko zuzendari nagusia izan da eta egun Kutxabanken hedapen sareko zuzendari ardura dauka.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.